

**Getxon, 2002ko martxoaren 21ean**

**Areetako Kale Nagusia, 31ko SCHren sukurtsaleko zuzendariari:**

Gutun honen bitartez zure erakundeak jarri berri duen errotulazioak sortu digun egonezinaren berri eman nahi dizugu. Lotsagarria izan arren, ohituta gaude mezu guztiak erdara hutsean ikusten. Hala ere, Santander Central Hispanok marka guztiak apurtu ditu zure sukurtsalaren kanpoaldean jarritako plaka dela medio.

Aipatu plakan “Las Arenas. Guecho, 31. Santander Central Hispano” irakur daiteke. Bertan, euskarazko toponimia eta grafiak bortxatu dira eta garai frankistetara bueltatuz, euskaldunon eskubideek, Euskaltzaindiak, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Getxoko Udalak berak agintzen dutenaren kontra euskaldunoi iseka egiten digu SCHk.

Horren aurrean, plaka hori berehala kendu eta euskaraz jar dezazun eskatzen dizugu.

Agur bero bat,

**Erromoko Euskal Herrian Euskaraz**